A young girl with curly hair, wearing a pink cardigan and a purple headband, is smiling and pointing her right hand towards a whiteboard in a classroom. The whiteboard has handwritten English grammar rules: "There is = dago", "There are = daude", and "With". A yellow circle highlights her hand. A large teal circle is overlaid on the left side of the image, containing text. A large red circle with a white smiley face and the letter 'D' is overlaid on the bottom right. The girl is sitting on a desk with a green pencil holder.

**Hezkuntza
hiru hitzetan:
kalitatea
konfiantza
arrakasta**

**Etorkizuna
hiru hizkuntzatan:
euskara
gaztelania
ingelesa**

AUKERA EZAZU
EUSKARAZKO HEZKUNTZA
AUKERA EZAZU D EREDUA

AUKERA EZAZU EUSKARAZKO HEZKUNTZA AUKERA EZAZU D EREDUA

D eredia irakaskuntza eredu **eleaniztuna** da, modu integratuan **euskara** (murgiltze goiztiarraren bidez), **gaztelania** eta **atzerriko hizkuntzak** (ingelesa eta, aukeran, frantsesa) irakasten dituen

Adituen iritziz, irakaskuntza eredu honen egokitasuna Nafarroako bi hizkuntza berezkoetatik abiatzea da, horrek dakartzan motibazioa eta gizartean erabiltzeko aukerak kontuan izanda.

40 urte luzeko berrikuntza pedagogikoaren eskarmentua du.

Irakasleak eleaniztunak dira eta ikastetxearen esparruan euskararen erabilera lehenesten da.

Hizkuntzen tratamendu integratuaren metodologia erabiltzen du, mintzaira bakoitzaren berezitasunetara espezifikoki egokitua, eta curriculumekoak ez diren hizkuntzak dituzten familien haurrak ere aintzat hartzen dituen.

Gurasoen parte-hartzea garrantzitsua da irakaskuntza eredu honetan.

Aurreinskripzioa:
otsailaren 13tik 17ra

Zenbait onura dakartza

D ereduak kontzientzia metalinguistikoa (hizkuntza sistema bat izatearen kontzientzia), ezagutza bidez prozesatzea (pentsamentua eta hizkuntzaren arteko harremana) eta hizkuntzak alderatzeko gaitasuna hobetzen ditu. Horretaz gain, hizkuntza bakoitzaren gaitasun mailari zein irakurketa trebetasunei laguntzen die.

Hizkuntza bat baino gehiago txikitatik ikasteak eta horretarako motibazioak mintzaira gehiago ikasteko erraztasun handiagoa ekarriko die ikasleei.

Hizkuntza batzuk jakiteak lan munduan abantailak dakartza.

Hizkuntzen tratamendu integratua eta hizkuntza bakoitzaren lanketa espezifikoa

D eredu aitzindaria izan da irakasbide berriak jorratzen, betiko pedagogia ez baitzen haren beharretarako egokia. Ikasleak aktibo eta beren ikaste prozesuaren protagonista joko lituzkeen pedagogia behar zen. Ikasleak hartzaile hutsak baino gehiago, beren ikastearen eragile aktiboak izatea zen helburu.

D ereduak curriculumeko hizkuntzen tratamendu integratua egiten du.

Ikastetxean euskara trinkoki lantzen da ikasleek komunikazio gaitasun maila altua eskura dezaten eta ikasleei euskaraz aritzeko aukerak ematen zaizkie, ikastetxean nahiz ikastetxetik kanpo. Irakaskuntza hizkuntza jardueren bidez egiten

da, ikaslearen adinari, gaitasunari eta interesari egokiturik, ahalegin gehiegirik eragin gabe. Hizkuntza berria ikastearen aitzinean haurren erosotasuna egokitzapen aldiko lehen egunetan bereziki zaintzen da. Hasieran haurrari modu erraz eta ulergarrian mintzatzen zaio, beti objektuari erreferentzia zuzena eginez. Hizkuntza jolasaren eta kantuaren bidez ikasten dute, bai eta errutina, errepikapen eta txokoetako proiektuen bidez ere. Ikasmailek gora egin ahala, ikasleekin erabiltzen den hizkuntza abstraktuago eta akademikoago bilakatzen da.

Gaztelaniaren ikasketa ez da kaltetua suertatzen bere presentzia soziala oso handia delako.

Ikasleek gaztelaniaz egiten dute gizarteko erabilera ez formal anitzetan. Ikastetxean gaztelaniazko hizkuntza eta literaturaz gain, erregistro formalak ere lantzen dira berariaz: gutunak, txostenak, eztabaidak, argudioak, gaien azalpena...

Atzerriko hizkuntzak, ingelesa zein frantsesa, curriculumeko edukien bidez lantzen dira baita hizkuntzaren lau gaitasunak ere, hau da, ahozko zein idatzizko ulermena eta ahozko zein idatzizko ekoizpena.

Atzerriko hizkuntzen ezagutza (ingelesa, frantsesa eta besteak)

D ereduko ikasleek hizkuntzaren kontzientzia garatzen dute eta errazago jabetzen dira hizkuntza tresna bat baino ez dela eta mezu bat adierazteko era bat baino gehiago daudela.

Hori dela eta, beste hizkuntzak ikasteko abantailak dituzte, beste hizkuntzak ezagutzeko irekita daudelako eta ikastearen aldeko motibazioa dutelako. Ulerberagoak dira gure munduko kultura

**“Euskara gure hizkuntza
baino askoz ere gehiago da.
Euskaraz hitz egiteak
gehigarri bat ematen dizu,
ateak irekitzen dizkizu,
gure umeen hezkuntza
hobetzen du eta
hizkuntzak ikasteko
gaitasuna
handitzen du”**

OIER SANJURJO
Futbolaria



aniztasunaz jabetzeko, kultura berriak ezagutzeko nahiz pentsakera anitzak barneratzeko.

Informazioa hizkuntza batetik beste batera edo beste batzuetara helarazteko gaitasuna dute, bai hiztegia aberasteko bai hizkuntzaren funtzionamendua hobeto ulertzeko.

Lanerako aukerak

Ikasleek hizkuntzak jakiteak lanerako aukerak handitzen ditu, bai gertuko bai urruneko lurraldeetan. Hizkuntzak jakitea eskatzen denetan, lan aukerak zabaltzen dira hizkuntzak jakiteagatik eta erabiltzeagatik hain zuzen ere.

Etxeko beste hizkuntzak

Etxean, curriculumekoak ez diren hizkuntzak (arabiera, errumaniera, bulgaria, portugesa edo beste edozein) hitz egiten direnean, D ereduan ikasiz gero, etxeko hizkuntza baloratua eta indartua sentituko dute.

Etxean, eskolakoak ez diren hizkuntzak hitz egitea, zailtasun bat izan beharrean abantaila da. Hizkuntzak elkarren babesean aberasten dira, komunikazio gaitasun komunari esker. Alegia, hizkuntzak erabiltzeko garunak mekanismo bakarra du. Hizkuntzak ezagutzeko gaitasuna ez da ezagutzen diren hizkuntzen artean banatzen; gaitasun hori handitzen joaten baita hizkuntzak ezagutu eta erabili ahala, beti ere, hiztunarentzat esanahia eta lotura afektiboa badute.

D ereduan ikastea gure komunitate elebidun honetan gizartean integratzeko elementu garrantzitsua da.


Zergatik komeni da ume euskaldunek D ereduan ikastea?

Etxean euskaraz hitz egin arren zaila izango da, eskolaren bitartez ez bada, gaitasun akademikoak euskaraz izatea (hizkuntza formala, matematika, zientzien ezagupen eta esperientziak...). Horregatik, ume euskaldunek ere D ereduan ikasten dutenean abantailak izaten dituzte hizkuntzak maila akademikoan ongi jakiteko.

Euskararen erabilera nola bultzatu

Gertuko komunitatean euskara erabiltzeko aukerak urriak direnean, euskaraz egiteko jarduera ezberdinak egin ditzakegu:

- Erraztasunak eman beren adinerako egokiak diren eta beren interesekoak diren programak ikus ditzaten telebistan edo interneten.
- Euskarazko hezkuntza jokoak, musika eta liburuak haien eskura jarri.
- Eskolan, herrian edo joateko aukera eskaintzen duen ezein musika saio, antzerki emanaldi edo bestelako edozein jarduera probestu.
- Ospakizunetan (urtebetetzea, Olentzero, Erregeak eta halakoetan) euskarazko baliabideak oparitu.
- Euskaraz hitz egiteko aukera ematen duten eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu, lagun, lehengusu eta heldu euskaldunekin.



**“Me hubiera
gustado tener la
oportunidad de
aprender euskera
y por eso lo quiero
para mi hijo...”**

PABLO LISARRI
Químico



**“Hemos
elegido la
educación en
euskera porque
creemos que
hablando tres
lenguas Ion tendrá
más salidas
profesionales
y una mayor
formación”**

AMAIA DEL CAMPO
Editora audiovisual

ELIGE EDUCACIÓN EN EUSKERA ELIGE MODELO D

El modelo D es un modelo de **enseñanza multilingüe** en el que se aprenden de manera integrada **euskera** (inmersión intensiva temprana), **castellano** e **idiomas extranjeros** (inglés y francés, este último optativo)

Tiene, según los expertos, la idoneidad de partir de las lenguas propias de la comunidad con las ventajas de motivación y posibilidades de uso social que esto supone.

Tiene una experiencia de innovación pedagógica de más de 40 años.

El profesorado es multilingüe y se prioriza el uso del euskera en el contexto escolar.

Cuenta con una metodología de tratamiento integrado de las lenguas y específico para las necesidades de cada una de ellas, teniendo en cuenta también al alumnado con otras lenguas familiares no curriculares.

La participación de madres y padres tiene una presencia importante en el modelo.

**Preinscripción:
del 13 al 17 de febrero**

Diversos tipos de ventajas

Mayor consciencia metalingüística (consciencia del lenguaje como un sistema), del procesamiento cognoscitivo (relación de pensamiento y lenguaje) y capacidad de comparación entre las lenguas. También influye en la mejora del nivel de dominio de cada lengua y de las destrezas de lectura.

A través del conocimiento de lenguas y de la motivación, el alumnado tiene mayor facilidad de aprender otros idiomas.

Aumenta las posibilidades de empleo al conocer diversos idiomas.

Tratamiento integrado y específico de cada lengua

El modelo D ha sido pionero en adoptar una nueva forma de enseñanza dado que la pedagogía tradicional no se adaptaba a las necesidades del mismo. Se necesitaba una pedagogía en la que el alumnado no fuese solo receptor, sino agente activo y protagonista de su aprendizaje.

El modelo D realiza un tratamiento integrado de las lenguas curriculares.

El euskera se trabaja de manera intensiva en el centro educativo para conseguir un alto nivel de competencia comunicativa y se aportan experiencias de centro y extraescolares de uso de la lengua. La enseñanza se realiza a través de las actividades lingüísticas adecuadas al alumnado según su edad, capacidad e interés, por lo que no supone un sobreesfuerzo.

Se cuida especialmente el tratamiento de las lenguas en los primeros días de adaptación del alumnado. En los primeros niveles el lenguaje es concreto y con referencia directa del objeto. Se aprende a través de juegos, canciones, rutinas y repeticiones, áreas temáticas del aula, proyectos... A medida que pasan los años se evoluciona hacia un lenguaje más abstracto y académico.

El aprendizaje del castellano no se resiente porque su presencia es muy fuerte en el entorno social de los niños y lo utilizan cotidianamente. El alumnado utiliza el castellano en diversos usos sociales no formales. En el centro se trabajan más específicamente no solo el conocimiento de lengua y literatura castellana sino además, específicamente, los registros más formales: cartas, informes, debates, argumentaciones, exposiciones de temas...

Los idiomas extranjeros, inglés y francés, se trabajan a través de contenidos curriculares y en las diversas competencias: comprensión escrita y oral, expresión escrita y oral.

Lenguas extranjeras (inglés, francés y otras)

Los alumnos y las alumnas del modelo D desarrollan una conciencia mayor sobre el uso de la lengua y son capaces de comprender más rápidamente que el idioma es solo un medio y que existen diversas formas de transmitir un mensaje.

Por ello, obtienen cierta ventaja en el aprendizaje posterior de otros idiomas, porque están abiertos



“Yo soy navarra, mi hija ha nacido en Pamplona... y Eduardo se siente de aquí. Queremos que Luana hable euskera porque es una seña de identidad de nuestra tierra”

RAQUEL PARDO
Profesora de Educación Física

a conocer otras lenguas y tienen motivación para ello. Entienden mejor la diversidad cultural de nuestro mundo y son más abiertos a nuevas culturas y a diferentes maneras de pensar.

El alumnado es capaz de transferir información y recursos de una lengua a otra u otras, comparando dichas lenguas y enriqueciendo todas ellas.

Cómo apoyar el uso del euskera

Cuando existen pocas posibilidades de uso del euskera en el entorno pueden plantearse diversas actividades para su uso:

- Facilitar que vean programas de televisión o de internet adecuados a su edad y a su interés.
- Proporcionar libros, música y juegos educativos en euskera.
- Aprovechar las actuaciones de teatro, música o de cualquier otro tipo que se puedan realizar en la escuela, localidad o a las que se pueda acudir.
- Aprovechar las celebraciones (cumpleaños, Olentzero, Reyes...) para regalar materiales en euskera.
- Realizar actividades fuera de la escuela donde tenga la oportunidad de hablar en euskera con otras personas de su entorno, familiares o personas mayores.

Posibilidades laborales

El conocimiento de idiomas abre posibilidades laborales en nuestro entorno y fuera de él.

Conocer diversos idiomas abre más posibilidades de realizar diferentes trabajos en los que se requiere el conocimiento y uso de los mismos.

Otras lenguas familiares

Las alumnas y alumnos que hablan lenguas familiares distintas a las curriculares (árabe, rumano, búlgaro, portugués u otras) verán en el modelo D su lengua reconocida y reforzada.

Hablar una lengua familiar distinta de las lenguas curriculares lejos de ser una dificultad, es una ventaja. Las lenguas se apoyan y enriquecen entre ellas debido a la competencia comunicativa común, es decir, a que existe un único mecanismo mental que dirige las lenguas. Lejos de ser una competencia que se reparte entre los idiomas que se conocen, es una capacidad que aumenta conforme se aprenden y usan las lenguas que tienen una significación y vínculo afectivo para la persona que las habla.

El modelo D será, además, un elemento importante de integración social en una comunidad bilingüe.

Su educación
en **tres** palabras:
calidad,
confianza,
euskera

Su futuro
en **tres** lenguas:
euskera,
castellano,
inglés

ELIGE EDUCACIÓN
EN EUSKERA
ELIGE MODELO D



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



euskarabidea